KALAPUTXT

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA 2019k0 ekaina 195. zenb

Alina Ivan

Euskarak bizitzeko beste modu bat eskaini dit



OIHANA KORTAZAR: "MUNDUKO ONENEKIN LEHIATZEA ZORTE HANDIA DA NIRETZAT

GOIZEKO IZARRA: 50. URTEURRENAK AURRERA DARRAI

EKAINA, EGUZKI AROAREN ATEA

ARDORIA: ITSASUA SUTAN

MFT: DENA ERE EZ DA FUTBOLA

EROSI BERTAN ZUK EGITEN DUZU MUTRIKU

bertanmutriku.com

bertan
mutrikuko merkatarien elkartea

facebook.com/BertanMutriku

bertan · Mutrikuko Udala · EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO



lea artibai
ikastetxea

LANBIDE HEZIKETA

Aurrematrikula datak:
EKAINAREN 3tik 14ra

gu, lanerako prest!

erdi mailakoak

- BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA

goi mailakoak

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA (2.maila)
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
- ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA
- EFIZIENTZIA ENERGETIKOA ETA EGUZKI ENERGIA TERMIKOA
- AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA

www.leartik.eus Markina-Xemein 946169002 info@leartik.eus

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa	943 60 43 00
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26
	626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50
	630 05 50 97
Amaia Zalduegi	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar)	943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar)	943 74 11 77
Yudego (Elgoibar)	943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar)	943 74 12 77
Idoia Lafuente (Eibar)	943 25 44 10

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48
	679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte	943 60 42 47
Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa (Deba)	943 19 23 60
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Partzuergoa	902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 89 92 24
Udal Euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia	638 67 23 83
ANTON taxia	666 22 19 99
XABI taxia	656 28 90 26
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa Autobusak	902 10 12 10
BizkaiBus	902 22 22 65
EuskoTren	902 54 32 10
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
Bikario etxea	943 60 39 88
Santa Catalina eleiza	943 60 32 00

EZ GAITZATELA AZKARREGI HIL

Gogoan dut Horazio Landa herriko aktoreak esandakoa 1996 urtean 'Cuestión de suerte' pelikula Alkolean grabatu zutenean; 'azkarregi hil naute!' bota zidan bat-batean. Arrazoia zein izan zen bakoitzak atera beza. Kasua da Alkoleako etxe puska hori, bere garaian Gipuzkoa osoko garestiena izan zena, pelikulak grabatzeko ere balio zuela, eta nola balio gainera. Orain, berriz, GI-638 errepidearen zabaltze-konpontze-oinez bide-bidegorriaren eraikuntza dela medio, kostata baina ziur, tunela ere eraikiko digutela; eta tunela eraikitzeko ahoak hartu behar bere zailtasunekin, are eta gehiago Alkoleako lur muturreko arbel pendizetan. Kasua da *Woowardia radicans* motatako 27 iratze edo garo ebaki dituztela langintza horretan ari zirela, nahiz eta babestuak egon landare mota horiek. Horren aurrean Mutriku Natur Taldeak salaketa sartu zuen Ingurumen Fiskaltzan eta bi egunez obrak geldiarazi zituzten arazoa konpondu arte. Gertakizunak erpin asko ditu, eta bakoitzak bereari helduko dio ziurrenik gaur egun dagoen 'postureo' giroak animatuta. Nik bakarrik hauxe esango dut: lur mutur horretan gorostiak, sahatsak, akaziak, urkixak, platanondoak, mahatsondoak, pinuak, kurpitxak eta eukaliptuak daudela landatuak. Landareei erreparatuz gero, mota guztietakoak, eta horien artean baita aipatutako garo mota hori ere. Bere garaian, berriz, Talaixa zaharra garbitu eta berria erabat prestatu zen. Prestatu bai, eta zaindu tamainan, eta horretan ez dituzte erru guztiak agintariek edukitzen, gutariko bakoitzak baizik. Gauza da Geoparkeak Zumaia aldera begiratzen duen honetan, gai izan ote gintezkeen Geoparkeko balkoia hor kokatzeko. Eguzki begira bezala mendebaldera, ikusmira paregabea, Mutrikuren sorrerarekin hain lotuak dauden bi talaixak bertan, zuhaitzak ere bai, landare babestuak bezalaxe. Surf-a egiteko Euskal Herrian dagoen bigarren eskuineko olatu hoberena lur muturraren oinetan omen dugu gainera. Beraz bidegorriak erakarriko duen jendetzari bide eman diezaiogun; aparkalekuak egokituz, eserleku batzuk jarriaz, zuhaitzak babestuz, landareak zainduz, talaixak errekuperatuz, Alkolea-Talaixa-Laranga bailara lotuko lukeen oinezkoentzako bide bat egokituz... Azken finean, 'eta nireaz zer' jokamoldea tamalez sustraituta dagoen honetan, 'gurea, guztiona' izango denari bide emanaz. Bien bitartean pentsa dezakegu, baita, zeintzuk izan ziren hain gutxi dauden Kurpitxa edo *Madroño* delako zuhaitzak landatu zituztenak, besteren batek aipatutako iratze edo garoak landatu zituen bezalaxe. Ez dadila suerte kontua izan bakarrik, suertea ere bakoitzak beretik beharrean, guztiok batera ekinez gero, era esponentzialean garatzen baita.

Argitaratzailea **Karenka komunikazio elkartea**
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393
e-posta **aldizkaria@kalaputxi.eus** - **kalaputxi2001@gmail.com**
web **http://www.kalaputxi.eus** Bloga **www.kalaputxi.blogspot.com**
Laguntzaileak **Mutrikuko Udala** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kolaboratzaileak **Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga.**
Tirada **2.200 ale** Lege Gordailua **SS-787/01** ISSN **1579-4792**
Inprimategia **EUSKALINPRI** Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

MUBAEri ERANTZUNA

Maiatzeko alean, MUBAE Elkarteak sinatuta argitaratu zen idatziari erantzuteko beharrean sentitzen gara, eta puntuz puntu erantzuten saiatuko gara.

ORMOLA: Ormolan ez zen udal zentimorik gastatu, landaketa egunean bertaratu ziren bolondresei eman zaien bokadilloatik at (50euro gutxi gora behera).

Mendia abandonatuta diozue, mendiak prozesu naturalak ditu, gizakiok "sastraka" garbiketarekin gure nahiaren arabera landatutakoa hobetzi bakarrik egiten dugu. Ormolan Mutrikuren herri izendapenarekin bat, 800 zuhaitz landatu ziren, Foru Aldundiko mintegitik ekarritakoak, itxitura ere Foru Aldundiak burutu zuen.

Ormolako landaketa eremuaren zabaleran 120-150 zuhaitz nahiko dira, beraz naturak aginduko du nor egokitzen den hobeto eta nork iraungo duen.

Urtero, kontu handiarekin, sastrakaren garbiketa bat ondo etorriko zitzaien landatutako zuhaitzei baina guk behintzat badugu zer burrukatu horren aurretik. Bidetik gorako pinu lerroak kentzea adibidez.

Mutrikuko udalean inoiz ez da ingurumena lehentasuna izan, ez daukagu ingurumen teknikaririk eta 2008-2011tik legealditik at, orduan hilabetero ingurumen batzordea biltzen zen, ia ez da ingurumen batzorderik burutu hondakinetaz aparte. 2011-2015 EH Bilduko aurreko legealdi osoan oker ez banabil 7 ingurumen komisio bakarrik egon ziren, eta EAJk burutu duen azken honetan ez zen ingurumen komisiorik sortu ere ez, B+I hautesle elkarteak ez zuelako nahi izan EAJrekin legegintzarako itunik sinatu nahi izan.

Beraz horrelako lanak ezin bultzatu, eta beste komisioetatik gaia landu izan nahi dugunean, erantzun digute oraindik lur horiek ez daudela udalaren lur erregistroan izendatuta (beraz lanak baino lehenago papelak zuzendu behar dira).

Mendia denona den mantra atera duzue berriro, eta esan behar dugu gure ahotik inoiz ez direla hitz horiek atera, ondo baitakigu Mutrikun baso eta landaketa guztien %2´18 bakarrik direla eremu publikoa. Hori orekatu nahian, bai jarri izan dugu gure indarrak eta udalean gure 1/13 bozkaz baliatuz 2016-2019 legealdian, urte bakoitzean aurrekontutik 10.000 euro bideratzea lortu dugu lur erosketarako (gaur 40.000euro daude horretarako baina naiz eta oraindik ez dute erosketaren esleipena GAOan argitaratu. Esperoan gaude emandako hitza bete dezaten). Hemendik 20-25 urtera herriko mendi lurren erdia publikoa edo konbenio bidez kudeatutako lurrak izan daitezela dugu helburu (2018an herriko %66´56 lurrak zuhaitzekin landatuta daude).

Basogintza eredua beti izan da ekologia eta biologia apur bat ulertzen duenaren kezka, baina Insignis pinudiei jo dien hostoetako azken gaitzek larrialdi egoera bihurtu du. Irtenbideak aztertzerakoan Mutrikuko arauetara jo genuen, eta bertan aipatzen diren landaketa forestalen mugekin topo egin genuen. Gipuzkoa eta Bizkaian orain 25 urte inguru gertatu ziren sute larriei irtenbide logiko bat emateko idatziak izan ziren.

Legealdi erdian hasi ginen lehenik Hirigintza batzordera eta gero Gobernazio batzordera gai hori eramaten, eta legedia betetzeko dela eskatzen.

Eta oraingoz hiru eremu bakarrik salatu ditugu. Aurretik abisatuaz baina kontutan ez ziguten hartu.

Gai hau jorratu zen udalbatzan alkateak argi adierazi zuen inolako borondaterik ez zuela legea betearazteko salaketarik egon izan ez balira . Hala ere, GFA da orain landaketa baimenak blokeatzen dituena. Ez bait dago prest landaketa txostenak udalari bidaltzeko. Udal lizentziaren prozeduran landaketak egiaztatzeko beharrezkoak direnak.

Hor bakarrik ez ginen geratu, basogintza eredu alternatiboak ere plazaratzen saiatu gara, 2018ko udazkenean europako beste herrialdeetan burutzen diren naturaren hurbileko basogintza ereduaren hitzaldia antolatu genuen Zabielen (eta aretoa txiki geratu zen etorri zen jendetzarako), horretaz gain hemen eta han informazioa lortzen ibili gara, baina Foru Aldundiak basogintzarako kudeatzen dituen dirulaguntza lerroak aldatu ezean, ezin liteke egoera aldatu.

2018an GFAk 5 milloi euro bideratu ditu landaketa forestalen azpisektoreko dirulaguntzetara, EAEko hiru foru aldundiak urtero diru berbera bideratuko balukete bertoko basoa landatzen duten jabei landaketa forestal arruntekin irabaziko luketena "konpensatuaz" landaketa guztien azaleraren erdia mendi babesle figura bihurtuko zen.

Diru hori nahiko izango zen orain landaketa forestal produktibistara bideratzen diren 200.000 hektarearen erdia, bertoko basoa bihurtzeko (Euskadiko 1994-2030 Plan Forestalak Mendi Babesle beharrei eskakizuna betearazten), eta beste erdia gizarteak behar duen egur beharrei aurre egiteko geratuko zen.

Zergatik jarri du fokoa basogintza lobbyak Mutrikun gertatzen ari denari? Hasieran, udalean sartu genuen Oxido Kuprosoarekin airezko legez kanpoko oso kaltegarria den tratamenduaren inguruko mozioarengatik. Ondoren dozenaka lan zientifikoak adierazten duten Eukalipto landaketa arriskutsuei moratoria bat eskatu genuelako Estatuan Espezie exotiko Inbasore izendatu edo ez erabakia hartu arte (azken mozio hau ez zen aurrera irten beste bi alderdietatik batek ere ez zuelako alde bozkatu). Gaur egun Mutrikun lur forestala bezela izendatutako eremuetan, legez eukaliptoa landatzen ari diren lekuetan, Estatuan espezie exotiko inbaditzaile izendatzeko balorea hartzen badute (zientifikoki ez dago dudarik ala dela), zer gertatuko da?

Europar Batasunetik Portugal eta Espaniako estatuei Eukaliptoen arazoa bideratu behar dutela deia egin diete, azken sute ikaragarriak hildakoak ere eragin zituztelako eta ingurumenean sortzen duten kalteengatik. Guk ez genuke nahi Portugal, Galizia edo Kantabria eta Bizkaiko egoeran gertatutakoa etorkizun motzean, eta gure baliabide guztiak erabiliko ditugu horretarako.

Arazo larri honen irtenbidea GFAtik dirulaguntza lerroak aldatzetik etorriko da, lur publiko eta lur pribatuen arteko oreka lortuz (Araban gertatzen den moduan adibidez) eta gero udaletatik ere hitzarmenak eta pizgarri ekonomikoak bideratuz (Bizkaiko Arreta herri txikiak (600 biztanle) 25.000 euro bideratzen du bertako espeziekin egindako landaketentzat -1.500 euro Ha/pertsona-.

MUBAEn eskutitza irakurtzean badirudi "hirigunekoak" baserritarren lepo bizi garela, eta hori eztabaidagarria iruditzen zaigu. Batzuek eta besteok jasaten dugun presio fiskala kontuan hartuaz eta konparatuaz adibidez.

Europatik Natura 2000 sarea, honen arteko pasabide naturalak eta beste hainbat legedi betearaztea derrigortzen dute estatuak, legedi propioa sortuz, eta erakunde horiek

Europako Nakazal Politiketako poltsatik (PAC) Mutrikura

2018 urtean: 278.521,31 euro (59 lagunentzat) bideratzen dute, 2017: 296.378,50 euro (60 lagunentzat) eta 2016: 301.275,00 euro 71 lagunentzat... horrela segitu dezakegu.

Gipuzkoako Foru Ogasunak argitaratutako datuen arabera, 524 jarduera ekonomiko legal daude aktibo Mutrikun. Iaz horietatik ZAZPI eragile besterik ez daude alta emanda lehen sektoreko jardueretan JEZen (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga). 3 Baso zerbitzuak eta arrantza eta akuikulturari lotutako zerbitzuak,2 Nekazal eta abelazkuntza zerbitzuak, 1 abelazkuntzako beste ustiapen batzuk eta beste bat erlezaintzan eta aurten horietako bat galdu da eta 6 bakarrik geratzen dira.

Dirulaguntzak gehien behar dituztenak, gure ustetan, bertatik bizitzen direnak izan beharko litzateke

-Nahi dituzuen landareak zergatik ezin dituzuela landatu?

Beste arlo guztietan bezela hau ere araututa dagoelako, landaketa forestalen arloan Mutrikuko Arau Ordezkoak

1997ko azaroaren 18an Foru Aldundiak onartu zituen eta 1998ko otsailaren 27an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua eta ondoren, 2007an onartutakoan landaketa

forestalen atala mantendu da.

Udalak eskumen osoak ditu herriko ingurumena egoera onean mantentzeko neurriak jartzeko (beti Mendi lege foralak diodana baino malguagoak ez badira), eta Baso Elkarteak jarri duen hainbat udalen arauen aurkako salaketa eta errekurtso guztiak galdu egin ditu, epaiak udalei arrazoia eman dietelako.

Azkenik esan behar dugu MUBAEtik Mutrikuko Udalari eginiko eskaerari erantzuteko MUBAEk dioenez, Mutrikuko Arau Ordezkoak (2006), ez lirateke bat etorriko 2014ko Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialarekin (aurrerantzean LPS), 2 urteko epean legedi berrira egokitu behar direlako.

Egokitze hori zehatzago aztertzea komeni bada ere, lehen begirada batean, ez dirudi MUBAEkoak kezkatzen dituen gaietan funtsezko ezer aldatu beharko denik lege berri horretara egokitzeko, ondoren azaltzen saiatuko garen moduan.

LPS horren helburu nagusiak dira:

f) Udal-plangintzak, lur ez-urbanizagarria zonakatzean, zenbait irizpide eta kontzeptu beregana ditzan gomendatzea, eta LAG (DOT) etan proposatutako Ingurune Fisikoaren kategorizazioa garatzea LPSan.

g) Nekazaritza-babesa eta ingurumen-babesa bateragarri bihurtzea.

LPS honek, Espazio babestuei dagokionez, dio:

Honako esparru hauek antolatzeko, ingurumen-araudira edo natura-inguruneari buruzkora jo beharko da, besteak beste, Europako Natura 2000 ekologia-sarea osatzen duten eremuak.

Beraz, LPS honek Mutrikuko udalerriko azaleraren ia erdia hartzen duen Arno KBEaren mugen barruan ez du eraginik.

Bestalde, LAGetako Babes Berezia kategoria ez da zehazki mugatzen, zeregin hori LPP (Lurralade Plan Partzial)ei eta udal-plangintzari dagokiela ulertzen duelako.

Beraz, kategoria horretan sailkatutako lursailei ere ez die LPS honek eragiten.

Ingurumenaren hobekuntza kategoriari dagokionez, LPS berak dio: ekosistema hobetzeko eta leheneratzeko lanak egin behar dira eta, horretarako proiektuetan alderdi jakin batzuk jaso eta bermatuko dira, hala nola, espezie autoktonoen erabilera, hazien jatorria eta genetika bermatzea, lurraren arabera espezieak aukeratzea, etab.

Beraz, Arau Ordezko hauetatik MUBAEkoak gehien kezkatzen dituen araua: 'Babes bereziko eta ingurumen hobekuntzarako kategoriako lurzoruetan bertako espezieekin egiten diren landaketak bakarrik baimenduko direla' dioena, zuzen zuzenean dator bat Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean jarduera honetarako esaten denarekin.

Gainera, MUBAEk dioenez Mutrikuko Arau Subsidiarioetako mozketa eta landaketa lizentzia eskatzeak Mendietako Foru Arauaren aurkakoak izango liratekeela. Azter dezagun:

Udalen eskumenak arautzen dituen Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak dionez, Euskal Autonomia Erkidegoko egitura juridiko-instituzionala hiru maila instituzionalen (erakunde komunak, lurralde historikoak, eta udalak eta gainerako toki-erakundeak) arteko egituraketan oinarritzen da, non maila, jatorri, eduki eta irismen desberdineko arau juridikoek elkarri eragiten baitiote.

Eta jakina da euskal administrazio publiko horiek elkarlanean eta lankidetzan aritu behar dutela, bakoitza bere eskumenen alorrean.

Aipatutako Legeak dioenez (17. artikulua), Udalerrien eskumen propioen artean daude:

8) Ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.

29) Hondartza, laku eta mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea, arlo horretan lurralde historikoek dituzten eskumenak eragotzi gabe. Hondartzetarako sarbideak antolatzea eta haien garbiketa-zerbitzua ematea.

31) Udalerriarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne).

32) Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu –motordun zein bestelako– eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko iritzitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.

Beraz, baso politika eta plangintza Foru Aldundiaren eskumena izateak ez du Udalaren ekimena eragozten, bere eskumenen artean udalerriko mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea dagoelako.

Kasu honetan, eta kudeaketa horren barruan, Mutrikuko Udalak zuhaitz mozketak eta landaketak udal-baimena behar duten jardueren artean sartu zituen, bereak diren eskumen horiek betetzeko beharrezkotzat jo zituelako. Lehen esan bezala erakundeak elkarlanean aritu beharko dira eta, horretarako, Mutrikuko Arau Subsidiarioetan berariazko aipamena egiten da jarduera hauek duten Aldundiaren baimen beharrari.

Gainera esan behar da Arau Subsidiarioek onartzeko prozedurak dituen bermeen artean Erakunde desberdinen parte-hartzea dagoela eta beti ere, onartu aurretik, Aldundiaren oniritzia jasotzen dutela.

Beraz gu beti egon gara hitz egiteko prest. Hala ere, ez gara joango ingurumena babesteko eratzen den legediaren aurka joango. Bakoitzak atera ditzala bere konklusioak azalpen honen ondoren.

Edozeinek aurkitu dezake Mutrikuko arauak diotena:

https://www.mutriku.eus/eu/.../mutriku-garatuz-bog-2018.pdf

40. artikulua.Baso sailak landatzeko lizentzia. 1.Edozein motako baso sailak landatzeko, lizentzia beharko da. Lizentzia eman aurretik, dagokion Gipuzkoako Foru Aldundiko aginpide eskudunak baimena eman beharko du. 2.Babes bereziko edo ingurumenaren hobekuntzarako lurzoruetan, espezie autoktonoak landa-tzeko lizentzia bakarrik emango da. 3.Jabe desberdinak dituzten finkekiko mugakide diren baso sailen landaketak egiteko, muga komunekiko honako tarte hauek gorde beharko dira, alderdien artean akordiorik egon ezean: —Baso sailen artean: 2 m. —Laboreen, belazeen edo fruta arbolen sailen aldamenean: —10 m. Eukalipto, konifero edo erretxinadunetarako. —5 m. Gainerako hostozabalen espezieetarako. —Landa etxebizitzen aldamenean, horiek nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenari atxikita egon ala ez: 100 m. 4.Alderdien artean akordioa egonez gero, gutxieneko tarteak ez dira Gipuzkoako Mendien 6/1994 Foru Arauan finkatutakoak baino txikiagoak izango.

BERDEAK + Independenteak

Gutunak izen abizenekin bidali:
kalaputxi2001@gmail.com edota
aldizkaria@kalaputxi.eus
Kalaputxik ez du bere gain hartzen aldizkarian hirugarrenek adierazitako esan-iritzien erantzukizunik.

garraioagarraioagarraioagarraioa

www.lurraldebus.eus - 900 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA (Debaraino, DB93 lantzadera)

Lekeitio	6:00	9:40	12:40	17:35	19:45	
Mutriku	**6:30**	**10:15**	**13:10**	**18:05**	**20:15**	
Deba	6:50	10:30	13:30	18:25	20:35	
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO (Debatik, DB93 lantzadera)

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Deba	8:40	11:40	15:15	18:40	21:10	
Mutriku	**9:00**	**12:00**	**15:35**	**19:00**	**21:30**	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA (Debaraino, DB92 lantzadera)

Mutriku	**7:00**	orduro	**20:00**	**21:10**	**21:50**	**22:20**
Deba	7:30	orduro	20:30	21:40	22:20	22:50
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA (Debatik, DB92)

ostiral laneguetan

Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05	23:55
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15	00:00
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30	00:15
Deba	6:45	7:45	orduro	21:45	22:20	22:35	00:20
Mutriku	**7:15**	**8:15**	orduro	**22:15**	**22:50**	**23:05**	**00:50**

DB04G ONDARROA-EIBAR (Debatik, DB92G) Larunbat gauetan

Mutrikutik	23:05; 23:35; 1:35; 3:35; 5:35

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	Donostiara, Mallabiara eta Soraluzera doazen lantzaderak hartu behar					
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	
Mutriku	Donostia, Mallabia eta Soraluzetik datozen lantzaderak hartu behar					

DB06 ONDARROA-SORALUZE (Debaraino, DB91 lantzadera)

Mutriku	**8:30**	**10:30**	**12:30**	**14:30**	**17:30**	**19:30**	**21:30**
Deba	9:00	11:00	13:00	15:00	18:00	20:00	22:00
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA (Debaraino, DB91 lantzadera)

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Deba	8:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10	21:10
Mutriku	**8:40**	**10:40**	**12:40**	**14:40**	**17:40**	**19:40**	**21:40**

larunbat, igande eta jai-egunak

bide-mozketa dela eta, ordutegiak eguneratuta

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA (Debaraino, DB93

Lekeitio	7:45	12:15	16:45	18:45	
Mutriku	**8:15**	**12:45**	**17:15**	**19:15**	
Deba	8:40	13:10	17:40	19:40	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO (Debatik, DB93 lantz

Donostia	10:30	14:30	17:00	Ig 20:30	Lr 21:00	
Deba	11:10	15:10	17:40	21:40	21:10	
Mutriku	**11:30**	**15:30**	**18:00**	**22:00**	**21:30**	
Lekeitio	12:15	16:15	18:45	22:45	22:15	

DB04 ONDARROA-MALLABIA (Debaraino, DB92 lantzadera)

Mutriku	Lr **7:00**	Ig **8:00**	orduro	**20:00**	**21:10**	Lr **21:50**
Deba	7:30	8:30	orduro	20:30	21:40	22:20
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA (Debatik, DB92 lantzadera)

Mallabia	Lr 6:50	Ig 7:45	orduro	Lr 21:45	Ig 19:45	
Eibar	7:00	8:00	orduro	22:00	20:00	
Mendaro	7:35	8:35	orduro	22:35	20:35	
Deba	7:45	8:45	orduro	22:45	20:45	
Mutriku	**7:55**	**8:55**	orduro	**23:15**	**21:15**	

DB04G EIBAR-ONDARROA (Debatik, DB92G) Larunbat gauetan

Eibartik		Debatik	1:05; 3:05; 5:05; 6:05

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	Donostiara, Mallabiara eta Soraluzera doazen lantzaderak hartu behar						
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	Lr 9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	Lr 22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Mutriku	Donostia, Mallabia eta Soraluzetik datozen lantzaderak hartu behar						

DB06 ONDARROA-SORALUZE (Debatik, DB91 lantzadera)

Mutriku	**9:30**	**11:30**	**13:30**	**17:30**	**19:30**	**21:30**	
Deba	Lr 10:00	12:00	14:00	18:00	20:00	22:00	
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40	

DB06 SORALUZE-ONDARROA (Debatik, DB91 lantzadera)

Soraluze	8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40	
Deba	Lr 9:10	12:10	13:10	17:10	19:10	21:10	
Mutriku	**9:40**	**11:40**	**13:40**	**17:40**	**19:40**	**21:40**	

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia	lehena A-O	lehena L-I	azkena egunero
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo	lehena A-O	lehena L-I	azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 **Ermuatik**	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 **Durangotik**	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 **Ermuatik**	6:40	20:40
A3915 **Durangotik**	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 **Ermuatik**	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 **Durangotik**	7:40	21:40

jai egunak

A3916 **Ermuatik**	8:10	22:10
A3915 **Durangotik**	8:40	21:40

DENA ERE EZ DA FUTBOLA

Mutriku Futbol Taldearen 75. Urteurreneko ekitaldien barruan Dena ere ez da futbola izenburupeko mahai-ingurua antolatu zen. Bertan, Luki Iriarte Errealeko gazteen arduraduna, Andoni Egaña bertsolari futbolzalea eta Jagoba Arrasate Osasuna futbol taldearen entrenatzailea Ane Urkiri kirol-kazetariaren gidaritzapean batu ziren.

GAZTEAK ETA GURASOAK

Lukik adierazi zuenez, gazteak Zubietara heltzean bizitzako etapa polit batean sartu direnez disfrutatzen saiatzeko esaten diete. Gurasoekin ere modu berean hitz egiten dute, ilusio faltsuak eta ondorengo frustrazioak ekiditeko.. Umeak lehenengo taldera iristeko ilusioarekin hasten dira, baina errealitateak erakusten du hasten den belaunaldi bakoitzeko bi edo hiru helduko direla onenean. Horrek ez du esan nahi futbola hor amaitzen denik, eta kirol horretan ibilbide polita eta asegarria egin daiteke elitera iritsi gabe ere. Lukik adierazi duenez, bere ibilbidean poz handienak Zubietan hasi eta lehen taldera iritsi ez diren jokalariek eman dizkiote.

ZALETASUNA ETA HIZKUNTZA

Andonik adierazi du bere aurreneko oroitzapenak futbolekoak dituela. Beti baloiarekin. Gazte utzi zuen futbola, baina 34 urte bete arte hondartzako futbolean aritu zen, futbol-konpetizioa gaztetan utzitako beste hainbat futbolzalek bezala. Futbolzale amorratua izanik, Andoniren ustez ez da lotsatu behar zaletasun horretaz, eta futbolak mugitzen duen masa sozial handia hainbat helburutarako ere erabil litekeela uste du. Adibidez, gure hizkuntzari, euskarari, futbolak asko eman diezaioke erreferente bihurtu diren kirolari horiek beren euskaldun izatea erakusten badute. Futbolaren ingurua beti izan da erdalduna, baina horri ere buelta eman beharko zaio. Horren haritik, gauza handia da, Andoniren ustez, 2019ko irailean hasiko den denboraldian euskal bost taldeetan bost entrenatzaile euskaldunek jardutea.

HEZKUNTZA

Lukiren hitzetan, egia da ikasketetako eboluzioa kontuan hartzen zaiela gazteei. Saiatzen dira futbolaz harago beste bizitza bat eraikitzeko aukerak zabaltzen, lehen mailara gutxi iristen baitira. Baina kontuan hartu behar da batzuek erraztasun handiagoa daukatela ikasteko eta beste batzuei gehiago kostatzen zaiela. Futbolari oso ona den batek nota kaskarrak ateratzen baditu, ez da zuzenean kalera botatzen. Lanketak egiten dira eta beste eboluzio batzuk hartzen dira kontuan, futbolari bakoitzak bere bidea aurkitu ahal izateko.

GIZA-HARREMANAK

Jagobak balio handia eman die futbolean eraikitako giza-harremanei. Adibide moduan, Mutrikura etorri eta futboletik ezagututako hainbat ezagun bertan ikustea pozgarria da, hori da beretzat futbola, lagunak egiteko bidea. Eta giza-harremanak umetatik landu behar dira bere ustez, kudeatu egin behar dituzte hezitzaileek eta entrenatzaileek. Adibide moduan aurtengoan Osasuna futbol taldeak izandako arrakasta aipatu zuen. Izan ere, kategoriako futbolistarik onenak izan gabe, futbolari-talde onena sortu izana izan baita garrantzitsuena, lagun-talde bat.



BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268



PENTSIODUNEN ALDARRIKAPENAK AURRERA

Eleizako eskaileretan elkartzen hasi zirenetik 17 hilabete daramate herriko pentsiodunek beren aldarrikapenak egiten. Aski ezagunak bilakatu diren arren, gogora ditzagun aldarrikapenok: KPIaren igoera pentsio guztientzat eta betiko, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, Pentsio--sistema publikoaren bermea, Pentsioen eta Lan erreformaren indargabetzea, 1.200 euroko gutxieneko soldata, 40 urte kotizatu ostean zigorrik gabeko aurre-erretiroa, gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakalarekin amaitu, Pentsio plan pribatuen pribilegioekin amaitzea. Iragarri dutenez, udan ere elkarteratzeekin jarraituko dute, eta udazkenean beste sektore sozialekin batera koordinatzeko eta erantzun zabal, zeharreko eta anitza emateko asmotan dira.

UDAN HERRIBUSA HONDARTZARAINO

Azken urteetan bezala, aurtengoan ere herribusak hondartzarako ibilbidea egingo du ekainean hasi eta iraila bitartean, goizean zehar herrian zehar egiten duen ibilbideaz gain.

Ekainean eta irailean hondartzara joan nahi duenak Errotondan hartu beharko du autobusa 12:30etan edota 13:30etan. Hondartzatik igotzeko, berriz, autobusa 13:00etan eta 13:45ean irtengo da hondartzatik. Zerbitzu horiek astelehenetik ostiralera izango dira.

Uztailean eta abuztuan, berriz, 12:30, 13:30 eta 14:00etan irtengo da herribusa Errotondatik eta 13:00, 13:45 eta 14:15ean hondartzatik. Bi hilabete hauetan, zerbitzua egunero emango da, astelehenetik igandera.



RAFA URANGA GRANADOS PREST

Abiatu berria da motoziklismo denboraldia eta dagoeneko Rafa hasi da *Maxiclasic* bere kategorian lehiatzen. Aurreko hiru denboraldietan Euskal Herriko txapelketa bi aldiz irabazita eta bigarren gelditutа, aurtengoan ere txapelketa irabazteko asmotan atera da pistara, hori bai, garbi edukita lehenengo gauza disfrutatzea eta minik ez hartzea dela. Bost lasterketa puntuagarrietatik lehenengoan irabazi egin du eta bigarren karreran hirugarren postua. Udalaren ohizko laguntzarekin batera, aurtengoan Zubiaram tabernaren patrozinioa ere estreinatu du, bere zaleen indarrak motorrari bultzada berri bat eman diezaion. Animo ba, Rafa!

GIPUZKOAKO MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTEAK ESKERRAK MUTRIKUARREI

Gipuzkoako Minbiziaren aurkako Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie mutrikuarrei urteroko diru-bilketa solidiarioan erakutsitako eskuzabaltasunarengatik. Izan ere, maiatzaren 22an Goiko plazan eta Beheko plazan ipinitako mahaietan 1.132 euro jaso ziren. Jasotako dirua ikerketa onkologikoko proiektuak finantzatzen eta gaixo zein haien senideei babesa eta laguntza emateko programak bideratzen eta gaixotasuna modu goiztiarrean detektatzeko eta prebenitzeko kanpainetan esku hartzen jarraitzeko erabiliko da. Gogoratu nahi da, baita ere, elkartearen zerbitzu guztiak doakoak direla eta diru-bilketaren moduko ekimenak ezinbestekoak direla lan horietan jarraitu ahal izateko. Mutrikutik hurbilen dugun zentroa, Eibarren, Ardanza 11 kalean.

Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak...)
asteazken iluntzetik igande gauera arte
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

Gorritxu autoak
Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com



UDAL BERRIA ERATU DA

Ekainaren 15ean 2019-2023 legealdirako udala eratu zen.Maiatzaren 26ko hauteskundeetan izandako emaitzen ondorioz, EH Bildu alderdiak 7 zinegotzi, EAJ alderdiak 5 zinegotzi eta BERDEAK+Independenteak alderdiak zinegotzi 1 izango dute.

Joseba Palenzuelak alkate kargua hartuta, Udalbatza osatuko duten zinegotziak hauek izango dira: Ainhize Azpiazu, Aitor Itza, Garoa Arizmendi, Ruben Andonegi, Haizea Egaña, Izaskun Osinalde, Jose Angel Lizardi, Ion Ganbra, Elena Cebrian, Xabier Eizagirre eta Iñigo Aguirre.



FAUSTO MUGERTZA AIZKOLARI ESKALATZAILEEN I. TXAPELKETAN

Aizkolari mutrikuarrak ekainaren 8an Bilboko Areatzan jokatu zen aizkora txapelketa berezian parte hartu zuen. Basque Sports enpresak antolatutako txapelketan David Naredoren, Julen Kañamaresen, Eneko Saralegiren eta Jokin Alkizaleteren aurka neurtu zituen indarrak. Naredok irabazi zuen norgehiagoka eta Fausto hirugarren sailkatu zen.

Aizkolariek 45 ontzako enborra moztu behar izan zuten bertikalean, australiar estiloan, bost metroko altuerara igota. Sailkapen fasean bost aizkolariek batera egin zituzten lanak. Bost metroko altuera igotzeko enborrean zuloak egin eta hiru ohol ipinita enborraren gorenera igo ondoren, kolpeka enborra lurrera ahalik eta azkarren botatzen ahalegindu behar izan zuten.

Lau onenetan sartuta, finalerdietara sailkatu zen Fausto, baina, hartan, ezin finalerako txartela lortu. Edonola ere, Faustok berriz ere erakutsi du plazan bere sasoi ona. Bejondeiola!



TXISTUA ENTZUTZEN DA HERRIKO KALIETAN

Herrixan txistulari faltan gozen eta orain dala hiru urte, jendia animatzeko txistu ikastarua antolatu gendun. Horri erantzunez, aurreikusi gabeko ikasle talde haundi bat gerturatu zan.

Ikastaruan irakasle bezela, Eunate, Aitzol eta hirurok ibili gera, ilusio ta gogo haundixarekin. Egin bihar zana argi zauan: txistua bultzatu eta txistua jende aurrera atera. Horretako, partitura desberdiñak ikasi eta kalian jo, herriko ekintzetan parte hartuta, erraldoi eta buruhaundixakin, dantzarixakin, kalejiratan ta beste hainbeste konpromisotan.

Bi urte hontan edade eta mailla desberdiñetako 20 ikasle inguru ibili zerate. Politxa izan da ein dezuen eboluziua ikustia, kanta bat ikasteko bi hillabete bihar izatetik, ordubete nahikua izatera. Abillak zerate!!!

Goazen eta *Trukian* Joakin Txikik konposatutako bi kalejira dia, Txistu Taldian sartu nintzanian Ainhizekin ikasi nitxuzen lehelengo bi pasakalliak. Hasitxako bide horri jarraipen bat eman nahi izan diot eta orain ikasliak dia kalian jotzen dabiltzanak. *Aitxona* Txiki oso pozik eta harro eongo da Mutrikuko kalietan, bere doinuak joten, txistulari pillua dabiltzala ikusitxa.

Gure partetik ein biharrekua amaitxu da, baiña badakizue aukeria dakazuela txistua ikasten jarraitzeko. Ah!!! Ta ez zarete libratuko, ekintza bakoitza datorrenian deixa jasoko dezuelako!!… baiña badakitx gustora etorriko zeratela.

Eskerrik asko danoi ikastaro honen parte izatiarren, erakutsi dezuen jarreriaitxio, astero-astero ekarri dezuen goguaitxio eta hasierako ilusio hori sekula ez dezuelako galdu,

ESKERRIK ASKO!!!

"Maxu"









50. URTEURRENAK AURRERA DARRAI

Goizeko Izarra ikastolako 50. urteurreneko ospakizunekin aurrera jarraitzen dugu. Apirilaren 13an Zabielgo ganbaran bertso trama izan genuen Mutrikuko Bertso Eskolaren eskutik. Ikastolaren ibilbidea 10 eszenatan antzeztu eta abestu zuten. Bertan geunden ikusleei malko eta barreak eraginez. Ikuskizun ederra izan zen eta bertan parte hartu zutenei eskerrak ematea besterik ez zaigu gelditzen eta horrela lanean jarrai dezaten animatu nahi ditugu.

Bestalde, maiatzaren 4an ikastolako ikasle ohien eguna ospatu genuen; egun ederra izan zen benetan. 210 herritarrek eman zuten izena bazkarirako eta jendea gogotsu hurbildu zen eguerdian Txurruka plazara. Aspaldiko gelakideak agurtu, elizako eskaileretan argazki erraldoia atera eta trikitilariak lagunduta herriko tabernetan zehar triki-poteoan ibili ginen. Kostata baina hiruak aldera iritsi ginen frontoira bazkari herrikoiaz gozatzera. Nahiko kontu eta hauretzaroko istorio kontatu genituen bazkalostean. *Ezten giro* erromeria taldeak alaitu zuen arratsaldea eta eguraldiak ezusteko txiki batzuk eman zizkigun arren giro ederrean bukatu genuen egun hura ere. Frontoian bazkaldu ez zuen lagun asko batu zitzaigun jaira zapi urdina lepoan ipinita.

Ekainean ere izan dugu zer ospatu. Urtero Ikastolan guraso elkarteak antolatuta ospatzen den jaialdia kalera atera, eta familien eguna ospatu baitugu ekainaren 15ean, egun honetarako ere egun osoko egitaraua prestatuta. Erraldoiak, argazkia, bazkaria, errifen zozketa eta, nola ez, oraingoan ere, eguna bukatzeko Beheko plazan musika izan dugu. Kurtso bukaeran ardatz izaten den jaialdia eta 6. mailakoeri agurra ere ez dira falta izan.

Herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu ekitaldi hauetan guztietan parte hartzearren.







50 URTEURRENA 1968 - 2018

GOIZEKO IZARRA IKASTOLA

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

aparra
ZURETZAKO MODA
www.aparramoda.com
Erdiko Kale 29 20830 Mutriku Tlf. 943 604 594 645 033 561

alina ivan

euskarak bizitzeko beste modu bat eskaini dit

Txiripaz etorri zen Euskal Herrira duela hogei urte Sokrates beka batekin. Bukaresteko unibertsitate publikoan ikasi zuen eta hizkuntzak berebiziko garrantzia du berarentzat; euskarak mundu ezberdin batera jauzi egiteko aukera eman dio, eta ez da damu.

Errumaniatik Euskal Herrira...

Karrera bukatu ondoren 1999an Sokrates bekarekin etorri nintzen hona. Lau aukera ziren eta niri Euskal Herria egokitu zitzaidan. Lasarteko institutu batean hasi nintzen ingeles eskolak ematen. Aldi berean, bertako familia batekin bizi nahi nuen, hemengo ohiturez eta bizimoduaz jabetzeko; 23 urte nituen eta beste era batera bizi nahi nuen. Lasarteko familiak bi neskatxo zituen eta gazteenak 6-7 urte zituen eta ez zekien gazteleraz, nik, berriz, bai. Bera ahalegintzen zen niri azaltzen zer nahi zuen, baina euskaraz, beraz, komunikatzeko arazoak geneuzkan. Ulertzeko behar horrek eraman ninduen euskara ikasteko erabakia hartzera.

Bukaresteko unibertsitatean ere euskara eskolak...

Bai, hala da. Dena den, esan behar dut garai hartan katalan eskolak ematen zirela eta nik haietan eman nuen izena. Ondoren, euskara eskolak jasotzeko aukera zabaldu zuten berriz, baina niretzat beranduegi. Euskal Herrira etortzeko aukera egokitu zitzaidanean pentsatu nuen Errumanian galdu nuen aukera aprobetxatzea. Lasarteko institutuan ari nintzela Txuma nire senarra izango zena ezagutu nuen. Ordura arteko gure harremana gazteleraz izan zen eta behin erabakita



Alina 2018ko *Euskaraldian*, *Ahobizi*.

aurrera egingo genuela eta hemen bizi nahi nuela, oso argi neukan euskara ikasi behar nuela. Hemengo errealitatea nire-tzat oso garrantzitsua zen, hemengo bizimodua, hemengo ohiturak eta hizkuntza errespetatu egin behar nituela eta hemengo hiz-kuntza ikasi behar nuela oso argi neukan. Etorri nitzenentik zazpi bat urte pasatu ziren euskara ikasten hasteko. Lanean egon ondoren langabezian gelditu nin-tzen eta une egokia iruditu zitzaidan euskara ikasteko. Eta halaxe ekin nion. Urte eta erdi Bilboko euskaltegi batean eman ondoren EGA azterketa gainditu nuen.

Berez irakaslea zara...

Irakasle izateko prestakuntza jaso nuen. Euskal Herrira etorrita institutuan egon nintzen lektora moduan eskolak ematen eta kazetaritza master bat egin nuen Bilbon. Aldizkari batean hasi nintzenlanean eta ikasketak konbalidatu nituenean erabaki nuen irakaskuntzara bueltatzea. 2009tik aurrera irakaslea naiz, ingelesa irakasten, Errumanian espainiar eta ingeles filologia ikasketak burutu bainituen.

Zenbat hizkuntza mintzatzeko gai zara?

Errumaniera nire ama hizkuntza delako, gaztelera, euskara eta ingelesa, ordena horretan. Gaztelera hamaika urterekin hasi nintzen ikasten, ingelesa hamabirekin. Kontuan hartu Errumanian gaztelerak garrantzia handia duela hizkuntza latinoa delako. Karrera ingelesez eta gazteleraz egin nuen. Eta hona etorrita ingelesa lan tresna bilakatu dut.





Euskara ikastea zaila dela diote...

Topikoa da nire ustez, niretzat ez da zaila. Hizkuntza ezberdina izateak asko lagundu dezake. Nire kasuan hala izan da, errazago ikasten da, eta ez dauka horrenbesteko konplikaziorik. Eta kontua da faktore asko daudela, baina niretzat motibazioa izan da garratzitsuena, *"gogoko tokian aldaparik ez"*.

Euskaldun bilakatzearen bidean zailena...

Argi daukat inguru euskalduna izateak berebiziko garrantzia duela ikasten ari zarenean. Gu Bizkaian bizi ginen baina eremu guztiz erdaldun batean. Zailena euskaraz bizitzea da. Euskara ikasi nuen baina Mutrikura etorri arte ez nintzen euskaraz bizi. Gaur egun euskaraz bizi naiz eta saiatzen naiz seme-alabekin errumanieraz hitz egiten. Eguneroko harremanetan euskaraz bizitzeko ez dut arazorik aurkitu Mutrikun. Aisialdian, berriz, esfortzua eskatzen dit aukerak bilatzea baina ez dut etsitzen. Lan pertsonal handia eskatzen du baina egin beharra dago. Norberak bere aldetik jarri behar du eta oso argi izan behar dugu euskara normalizazio bidean dagoela eta esfortzua egin behar dugula guztiok.

Zer ekarri dizu euskara munduak...

Bizitzeko modu bat eskaini dit, sentsibilitate ezberdin bat, beste errealitate bat, oso aberasgarria. Beste betaurreko batzuekin ikusteak bizitzeko beste aukera batzuk eskaini dizkit, hizkuntza bat gauza asko dira: kultura, nortasuna, historia... Norberaren esfortzuak, eta horrekin batera, kontzientea izateak aberastu egiten zaitu.

Zure lanean euskaraz bizitzeko aukerarik...

Eibarren egiten dut lan eta saiatzen naiz ahal dudan gehienetan euskaraz egiten. Ulermena handia izan arren, ohituragatik edo, gazteleraz hitz egiten didate askotan. Ni oso baikorra naiz eta basoa erdi beteta ikusteko joera izaten dut. Ahal dudan guztietan ahobizi izaten saiatzen naiz.

Euskal Herrira etorri berria denari zer esango zenioke...?

Bakoitzak bere egoera propioa izanik ere, hemengo egoera ezagutzea eta gozatzea aholkatuko nioke. Kanpotik datorren bakoitzak bere lehentasunak izango ditu, nola ez, baina hemengo kultura, ohiturak, errealitatea ezagutzea beharrezkoa dela uste dut.

Nola ikusten gaituzu euskaldunok?

Asko harritzen nauena zera da, guraso euskaldunak izanda, familia batzuetan seme-alaba guztiek euskara ez jakitea edo euskaraz ez bizi izatea. Hemen jaio dira eta hemengo errealitatearen jakitun dira... Nortasunaren zati handi bat galtzen dutelakoan nago. Nire bizitza erdia hemen eman dut eta errealitate honetan erabat murgilduta nagoela sentitzen dut. Batzuentzat abizen euskaldunak izatea nahikoa da, baina nik beste behar batzuk sentitzen ditut. Ez dut kritikatu nahi, ze badakit egoerak ezberdinak izateaz gain lehentasunak ere bakoitzak bereak dituela, baina ziur esan dezaket aberastasun handia galtzen ari direla.

Zure ustez, gorde beharreko zerbiat...

Norberaren hizkuntzaren transmisioak garrantzi handia du niretzat; nik seme-alabei nire ama-hizkuntza irakasten diet, gero eurek ikusiko dute erabili edo ez. Urtean behin joaten gara Errumaniara eta eurek ere amaren jatorriaren berri izatea nahi dut. Nire ustez, hitz bat ez da hitz soil bat, hitzek badaukate barnean esanahia, kultura eta herriaren sentipena... eta hitzetatik harago badago gauza asko trasmititu beharrekoak. Hizkuntzaren bitartez, hizkuntzaren baitako mundu sinboliko oso bat dugu transmisiogai.

Euskalduna izatea merezi du; ezinbestekoa da niretzat.

> "Euskaraz bizitzeko ez dut arazorik izan Mutrikun

> "Ahal dudanetan ahobizi izaten saiatzen naiz



Alina, Mutrikuko Institutuko ikasle-talde batekin.



ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. **943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24**
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

EKAINA
EGUZKI AROAREN ATEA

Astoez eta hostoez gain, udaberri(ko)loreak (hau da, loreak eta koloreak) aipatu genituen maiatzeko atalean. Oraingo honetan, aldiz, su-bola handi bat izango dugu protagonista: **EKI**, edo **E**guz**KI** izenez askori ezagunago egingo zaizuena.

Urte erdia igaro da, eta jada sartu gara uda, udara edo bedats deitutako urt(e)aroan; hondartza garaia askorentzat.

Seigarren hilabetea; ekainaren 17an izan genuen urteko seigarren ilargi betea, baina oraingo honetan, ilargiaz baino eguzkiaz arituko gara. Ekaina EKI+GAINA baturatik dator, eta eguzkia gain-gainean izaten dugun garaia adierazten du.

Hilabete hau izendatzeko, ordea, badaude beste izen batzuk ere. Hona hemen horietako batzuk: arramaiatza (Z), maiatza berri/errepika (L), ereiaroa, bagila (B, Z), garagarrila (G,N), garagarzaroa, udaila, errearoa, jorraila...

- Arramaiatza: arra+maiatza baturatik sortutako hitza da, eta “arra” hitzak “berriro” edo “berriz” esan nahi du. Bigarren maiatza izango litzateke. Hala esaten dute Zuberoan. Lapurdin erabilitakoak, aldiz, esanahi bera duten “maiatza berri” eta “maiatza errepika” dira. “Arra” hitzaren esanahia jakinda, ea “arrats” edo “arratsalde” hitzei zentzua aurkitzen diezun, baliteke zerikusia izatea eta.
- Bagila: Diotenez, hilabete honi deitzeko modu zaharrena hau da. Baba+hila baturatik datorrela dio Astarloak. Besteak beste, babak/babarrunak/indabak/indiarrak izenez ezagutzen ditugunak ereiteko sasoia baita. Ebagi+hila ere izan litekeela diote beste batzuek. Zehazki, nik neuk ez dakit garai honetan zer ebakitzen den; baserritarrek jakingo dute nik baino hobeto. Hori ziurtatzeko azterketa sakonago bat egin beharko litzateke.
- Ereiaroa: Ereiteko aroa edo sasoia da. Orain zer ereiten da baina?besteak beste, babak/babarrunak ereiten dira garai honetan. Horregatik hartzen du izen hau.
- Garagarrila: garagarra+hila baturatik dator, hilabete honetan izaten dugulako garagarra gure landetan. Garagarzaroak gauza bera diosku.

Eta Mutrikun zer erabiltzen da edo erabili izan da? Ba, gaur egun “ekaina” erabili arren, garai baten “jorraila” eta “bagila” ere erabiltzen ziren. Kontuz jorrailarekin, toki batzuetan apirilari ere horrela deitzen baitiote.

Suaren dantzan

Nola utzi urteko egun berezienetako bat aipatu gabe? Ba ote horrelako xarma, misterio edo berezitasunik duen beste egunik urte osoan? Uda 21ean hasten da, baina handik bi egunera... suak, garrak, txinpartak, dantzak, kantuak, antzerkiak eta aspaldiko euskal ohitura bitxiak elkartzen dira gau bakarrean; urteko gau laburrenean. Bai, gaur egun, batez ere, San Juan suen eguna edo San Juan bezpera izenez ezagutzen den egunaz ari naiz. Toki batzuetan oraindik Donibanetik eratorritako Doniene edo Doniñe ere erabiltzen dituzte San Juan esateko. Ederra litzateke galtzear dagoen euskal izen hori berreskuratzea. Urteko egunik luzeenak izaten dira sasoi honetakoak, eta Doniene/Doniñe, Donibane edo San Juan egunetik aurrera hasten dira egunak laburtzen.

Suen eguna berezia da benetan, eta egun horren gaur egungo izenak San edo Done izan arren, ez du kristautasunarekin zerikusirik; egun horretako ospakizun edo errituek jatorri paganoa dutela esaten dute. Suak eguzkia irudikatzen omen du, eta eguzki aroaren (uda) etorrera ospatzen da festa edo erritu horrekin. Urteko egunik luzeena izaten da eta eguzkiari eskaintzen zaio; tradizioak dioenez, eguzkia gurtzeko eta izpiritu gaiztoak uxatzeko pizten da sua. Festa hori, akelarrearekin ere lotzen dute askok. Akerbeltz, sorginak... etortzen zaizkigu gogora akelarreaz pentsatzean; euskal mitologiarekin ere badu lotura egun horrek. Halere, interesgarria bezain bitxia izan arren, ez gara sartuko akelarreari buruzkoetan, asko luzatuko baikinateke.

Bukatzeko, egun horretako ohitura bitxi batzuk ekarri nahiko nituzke gogora: urte ona izateko eta arima garbitzeko suaren gainetik salto egitea, suaren ondarrak etxera eraman eta uzta babesteko erabiltzea, eguzki-ateratzea dantzan edo saltoka ikustea, goiz horretan errekan bainatzea, gauza zaharrak erretzea, gaixotasunen kontra biluzik eguzkia atera baino lehen lurrean ibiltzea...

Gure arbasoek eguzkia jainkotzat zeukaten (pentsa, Historiaurreko trikuharriak ere ekialdera begira, eguzkiari begira, jartzen zituzten); guk eguzkia ez dugu jainkotzat, baina bizi-indarra ematen digu, ekiloreei bezala. Lotsati edo oldarkor, baina bihar ere han goian izango dugu. Hortaz, badakizue, saltoka, itzulipurdika, dantzari, biluzik, ameslari edo kantari, gogoratu erre ez zituzten sorginen oinordeak garela, bizirik gaudela eta ohiturok bizirik mantentzea ere gure esku dagoela.


Ibon Aginaga Imaz



ZAINDU DEZAGUN ITSASOA

Itsas kutsadura edozein itsasotan aurretik zeuden ingurumen baldintzak aldatzen dituen substantziak sartzean datza. Itsas kutsaduraren %44 lurretik jasotzen da. Bigarrenik, %33 atmosferatik eta, azkenik, %12a itsasoan bertan sortzen da. Kutsadura da, itsas baliabideen gainustiapenarekin eta kostaldeko habitaten galerarekin batera ozeanoetako mehatxurik handiena da.

Pentsa liteke arazoa urrutiko dela, baina gure ohiturei erreparatzen badiegu, laster konturatuko gara geuk ere geure ardura dugula. Denok egin dezakegu zerbait itsasoa zaintzeko eta horrenbeste ez zikintzeko. Hurrengoan, pentsa dezagun horretan itsasora zerbait bota aurretik.



oihana kortazar aranzeta

“Munduko onenekin lehiatzea zorte handia da niretzat”

Bi urteko geldialdiaren ondoren indartsu ekin dio Oihanak aurtengo Zegama-Aizkorri lasterketari. Bosgarren klasifikatu da emakumezkoen sailkapen orokorrean, eta lehenengo euskalduna izan da. Gustura eta pozik bukatu zuela dio.

Kirolak zer leku dauka zure bizitzan?
Handia. Nire eguneroko egin beharrekoak, elikadura, atsedenaldia... dena kirolaren inguruan antolatzen dut. Lehiatzen egon ez naizen denboran ere garrantzi bera ematen diot. Gainera, egun nire lanbidea ere bada kirola.

Zer dauka Zegama-Aizkorrik kirolari guztiontzat hain kuttuna izateko?
Bertan batzen diren zaleek egiten dute lasterketa maitagarria izatea. Beste lasterketa asko badaude hangoa bezain gogorrak, ederrak... baina hura bezalakorik ez. Jende horren guztiaren animoak dira hegan eramaten zaituztenak ezinean zoazenean.

Azken Zegama-Aizkorri honetako etsaia beroa izan zen...?
Askorentzat agian bai, niretzat ez; okerrago eramaten dut hotza. Bestalde, domekan, beroaz gain, hezetasuna ere handia zen eta horren eragina lasterketari ia denok igarri genuela uste dut.

Han bildu zineten mendi lasterkari onenak...
Golden Trail Serie zirkuituko lehengo lasterketa izan da Zegamakoa. Batzuk zirkuitua egiteko etorri ziren, beste batzuk, berriz, Zegamako xarma berezi horrek erakarrita. 2016an lesionatu eta pare bat urte lesioarekin bueltaka ibili nintzen. 2018an berriz hasi banintzen ere, ez nengoen Zegama egiteko prestatuta. Aurtengoa froga zen niretzat, nola erantzungo nuen jakin nahi nuelako. Garrantzitsua da motibatuta egotea, norbere buruarekin konfidantza edukitzea, eta garbi izatea txakalaldi uneak egongo direla. Aurten lasterketa egiteko gosea eta ilusioa neukan, ez neukan ezer galtzeko, beraz, dena ematera atera nintzen. Ez nintzen lehena iritsi, baina irabazle izan banintz bezala sartu nintzen Zegaman, besoak jasota.

Erlojuari sarri begiratzen diozuna zara...
Bai, begiratzen diot, ez denbora kontrolatzeko baina bai gela hartzea noiz tokatzen den jakiteko, 30-45 minuturo hartzen dut gel bat, ura, ura eta mineralak... eta domekan egiten zuen beroarekin sarri eskatzen zidan gorputzak ura, gelak eta denetik, ondo hidratatzea behar-beharrezkoa izaten baita.

Gozatu ala sufritu egiten duzu?
Bietatik. Oraingoan sufritu nuen arren gozatzeko uneak ere izan ziren. Ez nuen min fisikorik eta neure buruari esaten nion zortea nuela han egoteagatik; bi urte ondoren hara iritsi izana handia zen niretzat. Gustuko horretan aritzea. Ikaragarria. Mentalizatuta joaten zara une garratzak pasatzeko, eta pazientzia da guztiaren giltza. Beti pentsatzen dut ni ikustera joaten diren guztietan, nire familia, nire gurasoak, zaleak... eta horrexek ematen dit helmugara iristeko indarra.

Antidoping kontrola ere egin zizuten...
Lasterketa aurreko kontrolak aleatorioak izaten dira, eta oraingoan tokatu egin zait. Bukaerakoak, berriz, aurreneko hiruei egiten dizkiete, beraz, aurtengoan niri ez.

Eta handik Mutrikuko lasterketara... eta duen sasoi onari helduta, lasterketaren emakumezkoen errekorra hobetu zuen, aurretik ere berak zuena. Ibilbidea osatzen duten 21 kilometro pasatxoak 1:48:23 denborako markan egin zuen Oihanak. Zorionak!

txirritxa .com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

Uzuri optika audio
ELGOIBAR - DEBA
RPS 183/12
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359



Argazkia: Jokin Lardizabal Azurmendi

ALKOLEA
ARDOTEGIA
Jon Andoni Basurko Pagoaga

Tel.: 943 60 35 99
alkolea.edariak@gmail.com
Barrenkalea, 2 - behea 20830 Mutriku

Edariak
eta gehiago...

hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan

ARDORIA ITSASOA SUTAN

Gaur egungo aparaturik ez zauanian, arrantzaliek bista onak eta esperientziak ematen zixuen intuiziua bihar-biharrezkuak zitxuen arrantzan egingo bazeuen. Endemas gabaz. Ardorako arran-tzan, han ibiltzen ziran sasoi bateko maiñelak, gaba illunian, itsasuan argitxasuna noiz ikusiko.

Antxobia harrapatzeko modu asko ezagutu ditxue gure arrantzaliek: maillatako sariak (saretan), mazixa botata (bolintxia), izurdiei segika (majuria)... Baitxa *ardoria* ere.

Ardorarako, gaba illuna bihar da, illundia. Arraiñek, ur azalian dozela, beuren mobimentuarekin zuritxasuna ateratzen deue. Maiñelen hitzetan, "*sua bezelakua da, fosforua bezalakua*". Fosforeszentzia horri *giñarra* edo *ardoria* esaten dixue arrantzale mutrikuarrek.

Arrantza klase hontan *giñarra* topatu bihar izaten zeuen itsasuan, arrain-sardia hain zuzen ere; eta gero, *treiña* izeneko sariarekin inguratu. Izenak berak garbi azaltzen deu sasoi baten ze barku klase erabiltzen zan arrantzan hontan: *treiñeruak* edo *traiñeruak*. Orduan, bi treiñeruren artian –bakoitzak trein mutur bat zaramala– egitxen zeuen sardia inguratzeko maniobria. Gerora, baporak hasi ziranian, treiñeru baten laguntza eukiten zeuen barku ikazdun harek. Baiña, motordun barkuetan ibillitxako maiñelek *treiña*rekin etxadia edo "etxaria" eginda harrapatzen zeuen antxobia.

Giñarra topatzeko, barkuaren aurrian, koastan, aurrekuak soka bati lotutako harri haundi bat (10-15 kilokua) –*sanbullua*– botatzen zoan itsasora behin eta berriz. Kontua zan arraiña mobitxu eragitxia, esnatu eragitxia, arrantzaliek jakitzeko sardia nun zauan. Halako baten, "*han ardoria!!!!*". Aurrekuak ematen zoan treiña botatzeko agindua, onduen berak ikusten zoan-eta ardoria.

Sanbullua bota gabe ere ikusi zeiken askotan giñarra, baiña illatergi erdixa zauanian edo illatergixa bistau eta ezkutatzen zabillenian laguntza haundikua zan harri haundi haura, orduan arraiñak giñar gitxi ateratzen zoan-eta.

Etxaria egindakuan, arraiñek beuren direkziua eukitzen zeuenez, arraiñik kanpora ez juateko harri txikixak botatzen zitxuen maiñelek txikot muturrera, arraiña bueltatzeko edo seno barrutik ez ertetzeko.

1960ko hamarkadan "maramia" erabiltzen hasi ziran ardoran. Maramak, ur azalera botatzen ziran piladun argi gorrixak ziran; hasiera baten kortxozkuak ziran, eta gero plastikozkuak erten zeuen. Argi harek ardoria markatzen zeuen gixak izaten ziran. Jeneralian bi-hiru marama gorri botatzen ziran, izan ere arraiña ibilli egitxen zan, hara edo hona, eta hola jakitzen zeuen arrantzaliek nun barruna zijuan arraiña, zein direkziotan. Eta, jakiña, hola bentajia hartzen zixuen arraiñari.

Marama berdiak ere erabiltzen ziran, berde harek, baiña, treiñari lotuta zozen: 10 brazatik 10 brazara marama berde bat. Itsasuan egon zeikezen beste barkuak norperaren sare barrura ez juatiarren jartzen ziran treiñian argi berde harek.

"Maramak" izen asko dakaz euskeraz: ondarrutarrek *toritati* esaten dixue, lekeitxiarrek *koreanua* eta bermiotarrek *bonbilloie*.

Orain dala ehun urte treiñak 70 metro luze ziran, eta 22 metro zabal. Eta, aurrerago 100 metroko luzeria baiño gitxiaguak baziran ere, Mutrikun ardoran ibilli zian azken treiñak 188 braza (315,84 metro) luzekuak ziran, eta kaidan 58 brazako (97,44 metro) zabaleria zaken.

Ardoran antxobiaz gaiñera beste arrain batzuk ere harrapatu zeikezen: sardiñak, berdelak... Antxobiak giñar gitxio eukitzen zoan eta berdelak eta sardiñak, berriz, haundixagua. Arrantzale batzuk bista onekuak ziran eta konturatuta zozen sardiñek, konparaziotarako, kordoia bezelako giñarra ateratzen zeuela. Baiña —kontuz!—... baten baiño gehixagotan pasau izan zakue




Mutrikuko arrantzaliei, arrain ona dalakuan, etxaria egitxia eta dana marmokia izatia.

Kirikiño, ardoriagaitxik galdezka

Gerra aurrian bazan *Euzkadi* (1913-1937) izeneko egunkari abertzalia. Evaristo Bustintza "Kirikiño" zan egunkari hortako Euskal Atalaren zuzendarixa. Bertan, albistiak euskeraz agertzen ziran, baiña horrezaz gaiñera berri-emaille batek galdera jakin bat egin eta hurrengo egunetan hanguek eta hemenguek erantzuten zixuen. Halaixe, 1919-03-26an "Ikusle" (ez)izeneko batek hala idatzi zoan: "*Getaria'ar bati aurreko egun batean entzun nion orain gabez egiten duten arrantzara joateari ARDORA esaten diotela; iztegietan ez dago itz ori noski. Zein ote da bere itzorkuna* [etimologixa]?"

Hori osatzeko, hala idatzi zoan Kirikiñok egun hartako egunkarixan: "*ARDORA" itz ori lengo egun baten be ekarri eban Ondarroa'ko idazki batek, eta neu egon nintzan oldoztuten zer ete-dan, eta alakoren baten itandu biar neutsela itxas-aldekoei. Ba, gaurko zure itandu orregaz era-erara dator, ta eskatzen dautset gure itxas-aldeko aizkidiei esan daiskubela zer dan "ardora" ori, eta nundik etorri dan itz ori, antziñakua dan ala oraintsukua, ta abar, bere zertzeladak esan daiskubezala*".

Kostaldeko herri askotatik aillegatu zakuezen erantzunak *Euzkadi* egunkarikuei, eta poliki-poliki agertu ziran egunkarixan. Guk Mutrikutik "Gresala" (ez)izeneko batek bialdutakuei erreparatu dixeu. Izan ere, bera izan zan lehelengua Kirikiñori erantzuten. Martixaren 28xan *Mozolo zarra* ezizeneko arrantzaliak eman ziozen azalpenak idatzi zitxuan egunkarixan: "*Itxasuan sasoi onetan, illundian, ilatargia sartzen danian, itxasuan egoten dala giñarra; itz onek esan gura dau itxasua egoten dala argi-argi, eta ikusten da arraña nundik nora dabillen, eta ardorak esan gura daula an argitasunian ikusten dirala arrain pilla izugarriak alkarrengana bilduta ur-azalian, danak zoratuta, eta juten dirala arrantzaliak arrastera deitzen dioen sare batekin, eta billatzen duela*".



1919-03-30ian berriz idatzi zoan Gresalak: "*Kirikiño: Ardora zarra dala neretzat erderazko itza izan biar du, zergatik or goi-aldian, Pasaya, Ondarrabi eta, "sua" esaten oi due arraña billatzen duenian, "emen sua, bota saria", eta emenguak ardora esaten due. Neretzat sua euzkeraz eta ardora erderaz*".

Ardoria, arduria eta adoria

Ikusi degun bezela, orain dala egun urteko euskaltzaliak garrantzi haundixa ematen zixuen hitzen jatorrixari edo etimologixari. Oso garbizaliak ziran eta kanpotik etorritxako hitzak begi txarrez ikusten zitxuen.

"Ardoria" Galiziatik etorritxako hitza izan zeikela esan zion Gresalak Kirikiñori 1919-04-02xan argitaratu zan gutun baten: "*Kirikiño: irakurri det iru erritakoek diotena ardora orren gañian eta ondo irizten diot. Baña zerbait aztarrena ateratzen asi naiz atzo; adierazi nion arrantzale bati izparringian ipintzen zutena, ta esan zidan bera gastetxoa zala, karlisten gerratean, Zarautz'en ei-eguan Kintana izena duan karabiñerua, eta au asi ei-zan arrantzuko lan orretan eta orrek zabaldu zuala "ardora" itza, Galizia´tik etorrita; lenago "sua" esaten oi zan emen ere bera gastia zala. Kintana au euzkel-gaitz, edo erdi-euzkera erdi-erderaz egiten zuana ei-zan, eta arrantzale jatorra*".

Izan ere, "ardora" hitza euskal kostaldian ez ezik Cantabrian eta Asturiasen ere erabiltzen da (ardor/ardora). Hizkuntzaren Erret Akademia espaiñolaren (RAE) hiztegixan ere agertzen da hitz hori, "*Ardora: Fosforescencia del mar que indica la presencia de un banco de sardinas*". "Ardor" (<ardor, -ōris) hitzetik dator eta hori "arder"-etik (< lat. ardēre). Euskaltzaindiaren hiztegi batuan ere azaltzen da: "*Ardora: Arrain sardak uretan sortzen duen argitasuna*"; baitxa beste hau ere: "*Ardoran ibili: Ardoraren argitasunaz baliatuz arrantzan egin*".

Kontu xelebria bada ere, aditxuen esanetan, badirudi euskerazko "adore" eta "ardura" hitzak jatorri berekuak dirala: *ardore>adore/adoria* 'animua, kemena, indarra' eta *ardora>ardura* 'kontua, axola'.

Giñarra eta sua

Esan degun bezala, Mutrikun *giñarra* hitza ere erabiltzen da ardoria izentatzeko, adin batetik gorakuek bai behintzat, baitxa Ondarruan ere. Zein ete da hitz horren jatorrixa? Giñarra/kiñarra 'txilarra' hitzarekin lotuta egongo da? Edo gixarra (giharra) 'nerbixua, zati gogorra' hitza eukiko deu oiñarrixan? Batek daki.

"Gresalak" idatzi zoanez, sasoi baten Mutrikun "sua" ere esaten zakon. Gaur egun, mutrikuarrek ez deue "sua" hitza erabiltzen hortako. Edo bai? Hona hemen Mutrikuko arrantzale ohi bati lehenguan entzun nion esaldixa: "*sanbulluak be(r)ak ate(r)atzen zoan sua*". Hara hor, konturatu ere egin gabe, oraindik ere bada gure artian gabeko argitxasun horri sua esaten dionik. Hiztegixetan gaiñera, ez da agertzen "su" hitzaren esanahi hori. Ezta gaba illunetan itsasuan ikusten diran arrain bakarrei esaten zakuen *itxapleruak* hitza ere.

Azken oharrak

"Txori-Erreka" ondarrutarrak (Euzkadi, 1919-03-31) arrantza berritzat zakan: "*arrantza ori barrija da edo ezta ain zarra*". Baiña, hona hemen arrantza horrek gitxienez 200 urte dakazela erakusten doan lekukotasuna: Domeka eta jaixegunetan arrantzaliak itsasora juaten zirala ikusitxa, 1819an, Calahorrako Eleizbarrutixak xedapen edo disposizio bat eman zoan. Lekeitxioko eleiz artxibuan kontsultatu zoan dokumentu hori Labayru historialarixak: "*se prohibe igualmente á las chalupas trañeras salir los sábados por la tarde á lo que llaman ardor; pero se les concede la salida quando hubieren á la vista algun manjui...*".

Sasoi baten ardoria kaltegarritzat jotzen zan, harrixak erabiltzen ziranez arraiña kostaldetik urruntzen zoalako, gabaz ibiltzia arriskutsua zalako, arraiña malaskatuta porturatzen zalako... Horrek ziran bolintxeruek ematen zitxuen errazoiak ardoriaren kontra egitxeko.

Hala azaldu digue maiñelek, "*treiñarekin ibilli eta hurrengo bi-hiru egunian arraiña maliaziatu egitxen da, sakabanatu*". Gabaz egitxen zan arrantza klase horrekin "*arraiña zabaldu egitxen da, batera eta bestera*".

Horixe pentsatuko zeuen agintarixek sasoi baten, bai Bizkaixan, bai Gipuzkuan debekatuta egon zan-eta.

Amaitzeko, Mutrikuko maiñelei entzundako bi esaera:

1.-Gabaz parranda egin eta hurrengo egunian baten batek ikusi eta esaeria: "*ze txo, atzo ardoran?*".

2.-Pixka bat "kargauta" juaten zanian baten bat etxera, bertakuek: "*E(d)arra etxaria, e!!!*".

Josu Larrañaga Arrieta



LAGUNA
Zorionak lagun! eza gara zutaz ahaztu e!



NAHIA eta MARKEL
Zorionak zuen urtebetetzean etxeko danon partez! Batez ere Aimar eta Eñauten partez.



LAGUNA
Gure lagun ona gogoan dugu eta Zorionak zuri!



LEHENENGO JAUNARTZEKOAK
Eskerrik asko Alazne, Mertxe eta MNari Joseri, bihoitz-bihotzez.





ARIANE eta NAHUEL
Zuen urtebetetzea izan zelako, Zorionak bioi!
Eta orain uda ederra pasa lagunekin!



AGURTZANE
Danokin akordatzen da-nari ere... Zorionak zuri!
Eta segi gure egunak alaitzen!

ZORIONTZEKO

E-POSTA kalaputxi2001@gmail.com / aldizkaria@kalaputxi.eus

WHATSAPP 635748393 **ESKURA** ANSORREGI ZAPATA-DENDAN

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

OKILA
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

Argazki Zaharrak



▲▲ **1911 urtean**

Segundo Beitia Urreola-Auzokoa eta
Josefa Ambrosia Teresa Arreitunandia Gatzagaetxeberria
senar-emazteak.





1970eko hamarkadan, Miruaitz frontoian Eskuzko partidua eta Kanpeonato lokala

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

ANSORREGI
oinetakoak
erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

www.kalaputxi.eus/botikak

ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

EKAINA		UZTAILA	
21etik 23ra	Amaia Zalduegi	1etik 4ra	Amaia Zalduegi
zapatu (22) goizean, Lasuen-Elezgarai		5etik 7ra	Hiart Burgoa
24tik 27ra	Amaia Zalduegi	zapatu (8) goizean, Lon Apraiz	
28tik 30era	Lasuen Elezgarai	8tik 11ra	Lasuen Elezgarai
		12tik 14ra	Lon Apraiz
Gauetan, egunero (22:00-00:00):		15etik 18ra	Hiart Burgoa
ELGOIBAR		19tik 21era	Amaia Zalduegi
Gauetan, egunero (22:00-09:00):		zapatu (20) goizean, Lasuen-Elezgarai	
Mercedes **ZUMETA**		22tik 25era	Lon Apraiz
San Agustin 5, EIBAR		26tik 28ra	Lasuen Elezgarai
943 82 04 98		29tik 31ra	Amaia Zalduegi

MENDI IRTEERAK

uztailak 5, 6, 7

SIERRA CEBOLLERA (Errioxa)

irailak 8

Egino-**OLANO**-Otzaurte

urriak 13

MANDOEGI

azaroak 17

Elizondo-**ALBA**-Elizondo

abenduak 1

ARNO inguruak

Burumendi Mendi Elkartea

egitarauak eta deialdiak: **aldizkaria@kalaputxi.eus** edota **whatsappa 635748393**

#AGENDA#

MUTRIKU FUTBOL TALDEA

75. urteurrena
EGITARAUA

ekainak 28tik uztailaren 31ra
75. URTEURRENEKO ERAKUSKETA

uztailean zehar
Urteurreko bideoaren aurkezpena

Urteurreneko liburuaren aurkezpena

ekainak 23, domeka
SAN JUAN SUA
Burumendin

ekainak 29, zapatua
BANDAREN KONTZERTUA
Zabiel plazan, gauean

uzatilak 6, zapatua
AKORDEOI ALARDEA eta MADALEN ABESBATZA
Goiko plazan, gauean

ODOLA EMATEA

abuztuak 2, 18:00etan anbulatorioan

Gipuzkoako Odol Emaileak

adats ANDONILARREA
943 60 39 45 - Barrenkale 1

OKINDEGIA POTERO
DENDA.....943603643
OKINDEGIA.943604512

Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

IBARPLAS
LEIHOAK



leihoaren erreferentzia

PVC
ALUMINIOA
MISTOAK
LEHIATILAK
BARANDILLAK

www.ibarplas.com

Itziarko Industrialdea Tel.: 943 19 92 26 faxa: 943 19 91 96 ITZIAR

MAIDER PINTO
estetika eta terapia naturalak

Kosmetika naturala eta ekologikoa!

Presta zaitez udarako!

Depilazioak
Pedikura-manikura
Gorputz eta aurpegiko tratamenduak
Pistola brontzeatzailea

Reflexologia

onura ikaragarriak dituen
aintzinako teknika!
Kontrakturak, insomnioa, antsietatea...

Etxerako zerbitzua ere egiten dugu!

Zu zaintzea da gure helburua!

Barrenkale 9, behea · 20830 MUTRIKU · Tel. 650 341 768



KANTAURIKO ANTXOA

LOREA
Gourmet

DESDE 1867

HEGALUZEA OLIBA OLIOTAN





ANTXOA OLIBA OLIOTAN



HEGALUZEA